

Gorputzak historiografiaren ardatz: 90eko hamarkadako euskal artearen irakurketa matrilineal bat

Tesiaren egilea: Maite Luengo Aguirre

Unibertsitatea: Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)

Saila/Institutua: Artearen Historia eta Musika Saila

Doktorego-programa: Ikerketa Arte Garaikidean

Jakintza-arloa: Artearen historia

Tesi-zuzendaria: Haizea Barcenilla

Tesiaren laburpena:

90eko hamarkadako euskal testuinguruan, gorputzari lotutako adierazpen artistikoak areagotu ziren emakume artisten artean. Egun arte, garai hartako sorkuntzaren irakurketa «emakume artista» kategoriaren inguruan sortu da, askotan artelanen nolakotasuna alde batera utziz. Garatzen ari den tokiko artearen historia feministaren ildotik abiatuta, tesi honen bitartez, artelan horien historiartzea gorputzaren ardatzaren inguruan berrantolatzea proposatzen da. Zehazki, gorputza lotura garrantzitsutzat jotzen da 60ko hamarkadan jaiotako emakume artista askoren lanak ikertzeko, eta esperientzia partekatuen inguruko irudi bat sortzeko.

Aurrenik, artelanen inguruan sortutako diskurtsoak ikertzen dira. Horretarako, artearen historiako iturriak behatzen dira, artearen arlotik garatutako ikerketak antropologiatik egindako ekarpenekin osatuz. Diskurtsoen analisisan, erakusketak ere hartzen dira kontuan, 90eko hamarkadako, XXI. mendearen hasierako eta azken urteetako hautaketa esanguratsua eginez. Hau da, Euskal Autonomia Erkidegoko erakusketetan gorputz-joera artistikoak izan duen presentzia zehazten da. Ondoren, garai hartan emakumeen gorputz-arketipo artistikoekin zegoen harremana ikertzen da. Behaketa hau egiteko, *Geu Emakumeok* aldizkari bizkaitar feminista eta *Erreakzioa-Reacción* kolektibo artistikoak sortutako fanzineak hartzen dira kontuan. Horrez gain, euskal testuinguruko artistek artelan ezagunen inguruan egindako berrinterpretazioak aztertzen dira.

Emakumeen gorputzen inguruan sortutako artelan anitzen corpusa sailkatzeko, hiru ibilbide tematiko proposatzen dira, honako gaien bidez: 1) gorputz sexuatu eta sexualitatea, 2) edertasunaren kanona, eta 3) mozarroa eta izaki fantastikoak. Lehendabiziko atalean, aluari lotutako irudikapenak, ugalkortasunari buruzkoak eta harreman sexu-afektiboak irudikatzen dituzten artelanak aztertzen dira. Azken azpiatal horretan, masturbazioa, maitasun erromantikoaren kritika edota pornografia mintzagai dutenak batzen dira. Bigarren atalean, edertasunari eskainitakoan, hedabideetan zehar hedatzen diren idealaren kritikak aztertzen dira artelanen bitartez, emakumeen gorputzak objektu gisa erakustearen ondorioak, ispiluaren

ikonografia eta dietaren kulturaren ingurukoak. Azkenik, mozorroen atalarekin ixten da ikerketa. Bertan, identitate anitzen esperimentazioa, azal eta jantzien inguruko sorkuntza eskultorikoak eta izaki fantastikoak jorratzen dituzten artelanak ikertzen dira.

Artelanak diskurtsoaren erdigunean jarriz, paradigma-aldaketa lortzen da. Historiografia androzentrikoko «emakume artista» kategoria tradizionaletik haratago kokatzen da 90eko hamarkada, belaunaldi bateko gorputzei lotutakoak bihurtzen baitira protagonista. Are gehiago, diziplinartekotasunaren alde egiten da diskurtsoa sortzeko: literaturako, antzerkiko eta musikako adibideak baliatzen baitira arte plastiko, teknologiko eta performatiboekin batera, gorputzen inguruko askotariko esperientziak hobeto ulertzeko.